



ORIOKUDALA

ORIOKO AHALDUNTZE ESKOLA

ORIOKO EMAKUMEON BEHARREN DIAGNOSIA

Eider Goiburu Moreno
Aizpea Esnaola Lizaso

2019ko ekainaren 28a

1.- SARRERA

Orioko Udalak 2013an Gizonen eta Emakumeen berdintasunerako 1. Plana (2013-2016) landu zuen (<http://orio.eus/es/gizarte-zerbitzua>) prozesu partehartzaile baten bitartez. Urte horietan lau lan ildo martxan jartzeko konpromisoa hartu zuen udalak: Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Gobernantza, Emakumeen ahalduntze eta balioen aldaketa, Gizarte-antolakuntza erantzunkidea eta Emakumeen aurkako indarkeria. Planak markatzen dituen ildoak erreparatuz 2013an Orion genituen hutsune berdinekin jarraitzen dugunaren hautematea dugu. Hau dela eta, Emakumeen ahalduntze eta balioen aldaketa ardatz hartuta aurkeztu genuen Ahalduntze Eskola baten sorreraren proposamena.

Ahalduntze eskola emakumeok prestakuntza jasotzeko, hausnartzeko eta elkarrekin egoteko dugun gune bat da, ahalduntze pertsonala eta kolektiboa eskuratzeko prozesuan, aurrera egiten lagunduko diguten gaitasunak ikasi eta garatzeko espazio segurua, alegia.

Orioko emakumeon jabetzea eta saretzea bultzatzea da ahalduntze eskolaren **helburu nagusia**, eta horrela emakumeon partaidetza soziala eta politikoa bultzatzea emakume guztion aniztasuna kontutan izanik: adina, jatorria, sexu identitate eta orientazioa, eta abar.

Aurretik aurkeztutako proiektuan, ahalduntze eskolaren sorreran 2 fase aurreikusi genituen. Lehenengo fasea, diagnosi fasea da, bigarrena, berriz, eskolaren diseinu eta gauzaketa.

Ahalduntze eskolak benetan jabekuntzaren helburua bete ahal izateko, eskolaren sorreraren prozesu osoak parte-hartzailea izan behar zuela argi genuen. Herriko emakumeok parte hartu behar genuen **diagnosi** bat landu behar genuen **herrian ikusten ditugun hutsuneak, beharrak eta nahiak adieraziz**. Horrela ulertzen dugu herriko emakumeei bideratutako ahalduntze eskola eratzeko modu egokia.

Txosten honetan, 1. Fasearen nondik norakoak azalduko ditugu. Hau da, diagnosirako erabilitako metodologia, emaitzak eta hauetatik eratorritako ondorio nagusiak.

2.- METODOLOGIA

Diagnosi hau egiterakoan bi prozesu paralelo abiatu ditugu: bat azterketa **kuantitatiboari** lotua eta, bestea, analisi **kualitatiboari** erantzuten diona.

2.1.- Metodologia Kuantitatiboa

Azterketa **kuantitatiboari** dagokionez, galdesorta bat sortu dugu¹. Honetarako, ahalduntze eskolaren lan ildoak kontutan izanik bost eduki bloke bereiztu genituen: gorputza eta osasuna, autoestimua, indarkeria matxista, sormena eta saretze eta parte hartzea. Bost bloke hauek eta inguruko herrietako ahalduntze eskoletatik martxan jarri diren jarduera eta ikastaroak kontutan izanik, bloke bakoitzeko jarduera ezberdinen zerrenda bat diseinatu genuen. Ondoren, Orioko gizarte zerbitzuetara bidali genuen gizarte langileen oniritzia eta ekarpenak jasotzeko. Hauen ekarpenak txeratu genituen. Gainera, bloke bakoitzean guk diseinatutako eta gizarte zerbitzuetatik proposatutako ekintzez gain emakumeek beste proposamenak txertatzeko aukera izan dute. Inkesta bukaeran ere, bloke hauetatik kanpo egon daitekeen beste edozein ekarpen egiteko espazioa izan dute.

Galdesorta osoa 4 hizkuntzetan jarri dugu eskuragarri: euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesa. Eta herriko emakumeei zabaldu dizkiegu, bai paper formatuan eta, baita, formatu digitalean ere.

Paper formatua eskuragarri izateko, herriko hainbat lekuetan utzi ditugu ale batzuk: Kultur Etxean, Kiroldegian, Haurtzaindegian, Gizarte Zerbitzuen Bulegoan, Gotzone Jostundegian eta AEK-n. Gainera, bi ikastetxeekin harremanetan jarri ginen (Ikastola eta Zaragueta) 3. eta 4. DBH-ko ikasleei inkestak pasa ahal izateko. Ikastolan, irakasleak arduratu ziren inkesta pasatzeaz, Zaraguetan berriz, proiektua aurkeztera gonbidatu gintuzten eta zuzenean guk pasa genien inkesta ikasleei.

Digitalean, batez ere, whatsapp bidez zabaldu dugu eta bost hizkuntzatan egin dugu zabalpen-deialdia (euskeraz, gazteleraz, ingelesez, frantsezez eta arabieraz).

(EUS) Udalaren babesarekin Orioko emakumeen beharrak identifikatzeko diagnosi bat jarri dugu martxan. Eskertuko genuke emakume oriotarra bazara inkesta betetzea eta zabaltea. Mila esker!

<https://labur.eus/oriokoemakumeak>

(CAS) Estamos realizando un diagnóstico para identificar las necesidades de las mujeres de Orio, con el apoyo del ayuntamiento. Agradeceríamos si eres mujer y de Orio que rellenas y difundieras la encuesta. Muchas gracias!

<https://labur.eus/mujeresdeorio>

¹ Lehen eranskinean ikus daiteke

(FR) Nous sommes en train de faire un diagnostic afin d'identifier les besoins des femmes d'Orio, avec le soutien de la mairie. Si vous êtes une femme et vous êtes d'Orio, nous vous remercierions que vous remplissiez et distribuiez ce questionnaire. Merci beaucoup!

<https://labur.eus/femmesdorio>

(AR) لقد بدأنا عملية إنشاء مدرسة لتمكين المرأة في أوريو. الخطوة الأولى هي تحديد احتياجات النساء. يهدف هذا المسح إلى تحديد تلك الاحتياجات ، وبالتالي ، فإن مساهمتك مهمة جدًا بالنسبة لنا. من المهم الإجابة على الأسئلة بإخلاص ، دون أن تكون صحيحة من الناحية السياسية. ستكون المعلومات التي نجمعها في هذا الاستطلاع سرية تمامًا ، وسيتم استخدامها فقط لإنشاء مشروع مدرسة التمكين. شكرًا لمشاركتك

<https://labur.eus/mujeresdeorio>

<https://labur.eus/femmesdorio>

(ENG) We are conducting a diagnosis to identify the needs of women in Orio with the help of the council. If you are a woman in Orio we would appreciate it if you could fill in and spread this survey. Thank you very much!

<https://labur.eus/womenoforio>

Gainera, Karkarak eta Hitzak ere zabalpenarekin bat egin dute diagnosiari buruzko artikulu bat argitaratuz. *Online* formatuan Karkararen kasuan eta paperean Hitzan.

Guretzat garrantzitsua izan da hasiera batetik Orion egon daitezken emakume anitzek gure proiektua ezagutu eta, euren beharrak kontuan hartuz, beraientzat sortzen ari garen zerbait bezala identifikatzea. Adin, lanbide, ikasketa, jatorri eta kultura ezberdinak kontuan hartuta osatu dugu datu basea, galdesortetan jasotako datuak digitalizatu eta analisi estatistikoak garatu ditugu SPSS estatistika programaren bitartez.

2.2.- Metodologia Kualitatiboa

Alderdi **kualitatiboari** dagokionez, inkestaren antzera, erreferentziatzko bost blokeak kontuan izanik talde eztabaidak egiteko gidoi² bat sortu genuen. Gidoia jarraituz emakume ezberdinek hautematen dituzten hutsune eta beharrak era sakonagoan jaso ditugu. Guztira, zazpi talde-eztabaida egin ditugu. Zazpi talde hauek lortzeko, kasu gehienetan taldeetan antolatutako emakumeetara jo dugu: Xaltxerak Talde Feminista, Orio Feminista whatsapp taldeko kideak, lesbianak, nerabeak eta emakume arabeak (Ikusi lagina). Talde-eztabaida bakoitzak, gutxi gora behera, ordu eta erdiko iraupena izan du, eta bileretarako espazio ezberdinak erabili ditugu: udal ekipamenduak (Salatxo aretoa zehazki) eta beraien elkarlanerako erabili ohi dituzten espazioak. Saio hauen ondoren eztabaidetan ateratako informazioa dokumentatu eta galdesortekin ateratako informazioarekin batera jaso, aztertu eta ondorioak atera ditugu .

² Bigarren eranskinan ikus dezakezue gidioa.

3.- EMAITZAK

Atal honetan, metodologia kuantitatibo eta kualitatibo bitartez jasotako informazioa aurkezten dugu. Metodologia bakoitzeko parte-hartu duten emakumeen ezaugarri soziodemografikoak eta adierazitako informazioa azalduko dugu ondorengo lerroetan.


3.1.- Emakitza Kuantitatiboak

Lehenik eta behin, atal honetan parte-hartu duten emakumeen ezaugarriak deskribatuko ditugu. 285 emakumek bete dute inkesta. Orioko emakumeon aniztasuna ahalik eta gehien jaso nahi izan dugu. Horretarako ardatz moduan diskriminatzaileak izan daitezkeen ezaugarriak izan ditugu kontuan: adina, jatorria, sexu orientazioa eta aniztasun funtzionala. Datozen lerroetan aurkezten ditugu emakume hauen ezaugarri garrantzitsuak.

3.1.1.- Parte hartzaileak

Jasotako inkesten emakumeen *adin* tartea 14 eta 83 urte bitartekoa izan da eta gehiengoak (%27) 18 eta 30 urte bitartean kokatzen da.


3.1. Grafikoa: Parte hartzaileen adina



Jatorriari dagokionez, hiru multzoetan banatu ditugu inkesta bete duten emakumeen erantzunak. Alde batetik Euskal Herrian jaiotakoak, beste alde batetik Estatu espainiarrean jaiotakoak eta azkenik atzerrian jaiotakoak. Bereizketa hau egiteko orduan, gure helburua errealitate ezberdinak ikusaraztea izan da. Badakigu Estatu espainiarretik etorritako emakumeek orokorrean Orion integratzeko eta sare sozial


zabal bat izateko zailtasunak dituztela, hizkuntzagatik besteak beste. Honek, emakume euskaldunak baino egoera zaurgarriago batera eraman ditzakete. Atzerritarrekin berriz, egoera gehiago larritzen da, emakume hauek, euskara ez hitz egiteaz gain kasu askotan arrazakeria eta beste hainbat diskriminazio bizi dituztelako. Grafikoan ikusi daitekeenez jasotako inkesten %80a Euskal Herrian jaiotako emakumeek bete dute.

3.2. Grafikoa: Parte hartzaileen jatorria



Ondorengo grafikoan, inkesta erantzun dutenen arteko *atzerritarren jatorria* azaltzen dugu. Ikusi daitekeenez 3 kontinenteetako 10 herrialde ezberdinetatik Oriora etorritako emakumeen iritzia jaso dugu. Jasotako inkesten gehiengoa Morokoko emakumeena izan da (%14).


3.3. Grafikoa: Parte hartzaile atzerritarren jatorria



Inkesta bete duten 285 emakumeetatik %50,9ak heterosexuala dela esan du, %3,5ak lesbiana, %2,8ak bisexuala eta %0,7a zehaztugabeko sexu orientazioan kokatzen da. %42,1ak ez dio galdera honi


erantzun. Datu hau jasotzeko arrazoia, heteroaraua hausten duten pertsonen kontrako diskriminazio eta indarkeria kontuan hartzea izan da. *Sexu orientazioan* heteroaraua betetzen ez denetan egoera zaugarriago batetara eraman gaitzake.

3.4. Grafikoa: Parte hartzaile sexu orientazioa



Azkenik, beste zaugarritasun ardatz moduan ulertuta, aniztasun funtzionala dutenen datua ere jaso nahi izan dugu. Ondorengo grafikoan azaltzen den moduan, jasotako inkesten %2,8ak adierazi du aniztasun funtzionala duela.

3.5. Grafikoa: Aniztasun funtzionala duten parte hartzaileak




3.1.2.- Emaitza orokorrak

Aurretik azaldu dugun moduan, inkestak 5 gai multzoetan banatu ditugu: **Gorputz eta osasuna**, **Autoestimua**, **Indarkeria Matxista**, **Sormena** eta **Saretze eta parte hartzea**. Ondorengo lerroetan multzo bakoitzeko emaitzak azalduko ditugu.


Gorputz eta osasun multzoari dagokionez, elikaduraren bitarteko autozaintza (%64,6ak aukeratua), zoru pelbikoaren lanketa (%43,2ak aukeratua) eta sexu osasuna (%42,1ak aukeratua) dira gehien aukeratu diren ikastaro edo tailerrak.

3.6. Grafikoa: Gorputza eta osasuna




Bigarren multzoan, Mindfulness (%69,8ak aukeratua) eta Kudeaketa emozionala (%68,8ak aukeratua) izan dira interes gehien piztu dituzten bi aukerak.

3.6. Grafikoa: Autoestimua



Indarkeria matxistaren alorrean, %61,1ak autodefentsa feminista formakuntzan parte hartzeko gogoia adierazi dute. %49,1ak indarkeria matxistaren inguruko hausnarketa edo tailerlean interesa adierazi du.

3.7. Grafikoa: Indarkeria Matxista




Sormenari erreferentzia egiten dion ekintza multzoan oinarrizko brikolajea izan da gehien aukeratu den ekimena (%49,6).

3.8. Grafikoa: Sormena




Azkenik, aniztasun kulturala (%44,2) eta autoantolaketa (%41,7) izan dira Saretze eta Parte hartze multzoan gehien aukeratuak izan diren ekimenak.

3.9. Grafikoa: Saretze eta Parte hartzea



Inkesta bete duten emakumeei, beraien behar eta interesak bete ahal izateko proposamenak eskatu dizkiegu. Ondorengo grafikoan azaltzen ditugu emakumeei egindako proposamen eta hauen portzentaiak. Ikusi daitekeenez, kirol arloaren lanketa (%2,9) eta emakume irakurle talde baten sorrera (%2,5) izan dira gehien errepikatu diren proposamenak.

3.10. Grafikoa: Proposamenak



Ikusi daitekeenez gehien aukeratuak izan diren ekintzak 'elikaduraren bitartez autozaintza' (%64,6), 'mindfulness' (%69,8), 'kudeaketa emozionala' (%68,8) eta 'autodefentsa feminista' (%61,1) izan dira.

3.1.3.- Parte hartzaileen ezaugarrien arabeko emaitzak

Aurretik azaldu bezala, adina, jatorria, sexu-orientazioa eta aniztasun funtzionala dira emakume izateaz gain diskriminazio egoera batetara eraman gaitzaketen ezaugarriak. Hauek kontutan hartu nahi izan ditugu emakume hauen ezaugarri ezberdinetatik egindako eskaerak entzun eta ulertu ahal izateko.

Kasu honetan, emakume talde bakoitzeko %50ak interesa adierazitako ekimenak azaltzen eta kolore bitartez azpimarratzen ditugu.

Ondorengo lerroetan azaltzen dugu ezaugarri bakoitzeko aukeraketa taula bat eta honi dagokion irakurketa.

Adinaren arabeko aukeraketak.

Ikusi daitekeenez, gazteek ekintza gehiagotan parte hartzeko interesa adierazi dute. 14 eta 17 urte bitartekoek 7 ekintza azpimarratu dituzte, 18 eta 30 urte bitartekoek 8 ekintza edo jarduera, 31-40 urte bitartekoek 7 ekintza, 41-50 urte bitartekoek 6 ekintza eta 51-60 bitartekoek 3, 61-70 bitartekoek 5, 71-80 bitartekoek 4 eta nagusienak 3 ekintza.

Azpimarratu beharra dago adin guztietako emakumeek adierazi dutela 'elikaduraren bitartez autozaintza' ekimenarekiko interes handia. Eta argi geratzen da autozaintzarako dagoen beharra *elikaduraren bitartez autozaintza, mindfulness eta kudeaketa emozionalaren* jardueren aukeraketa kopurua ikusita.

3.1. Taula: Adinaren arabeko aukeraketa

	Sexu Osasuna	Menopausia eta autoezagutza	Zoru pelbikoa	Elikadura	Mindfulness	Kudeaketa emozionala	Indarkeria Matxista	Autodefentsa feminista	Feminismo anitzak	Oinarrizko brikolajea	Joskintza	Autoantolakuntza	Aniztasun kulturala
14-17	%51			%52,9	%74,5	%68,6	%66,7	%84,3	%62,7				
18-30	%63,2			%71,1	%71,1	%80,3	%69,7	%72,4		%59,2		%52,6	
31-40			%62,5	%76,8	%71,4	%71,4		%60,7		%69,6	%53,6		
41-50		%55,3	%61,7	%53,2	%72,3	%66							%51,1
51-60				%52,4	%61,9	%61,9							
61-70				%66,7	%61,1	%50				%50			%50
71-80				%85,7	%71,4	%71,4				%57,1			
81-90				%50						%50	%50		

Jatorriaren arabera aukeraketa

3.2 taulan ikusi dezakegu nola Euskal Herrian eta atzerrian jaiotako emakumeek jarduera gehiagoren behar edo/eta interesa adierazten duten. Aldi berean, honako hauek dira emakume guztiek aukeratutako ekimenak: *Elikadudaren bitartez autozaintza, Mindfulness, Kudeaketa emozionala eta oinarrizko brikolajea.*

Aipagarria da ere atzerrian jaiotako emakumeek bakarrik adieraztea *aniztasun kulturala* ikustarazi eta balore bihurtzeko interes edo/eta beharra. *Autoantolakuntza* formakuntza ere beharrezko ikusten dutela azpimarratu behar da.

3.2. Taula: Jatorriaren arabera aukeraketa

	Elikadura	Mindfulness	Kudeaketa emozionala	Indarkeria Matxista	Autodefentsa feminista	Oinarrizko brikolajea	Autoantolakuntza	Aniztasun kulturala
Euskal Herria	%64,6	%72,6	%74,4	%52,5	%64,1	%50,2		
Estatu espainiarra	%63,6	%63,6	%51,5			%51,5		
Atzerria	%63,6	%54,5	%50		%59		%54,5	%54,5

Sexu orientazioaren arabera aukeraketa

Ondorengo taulan ikusi dezakegu nola heteroarautik at dauden pertsona guztiek (Lesbiana, bisexual eta zehaztugabea orientazioa dutenek) jarduera ezberdinen eta gehiagorengatik interesa adierazten duten heterosexualek baino.

3.3. Taula: Sexu orientazioaren arabera aukeraketa

	Sexu Osasuna	Aniztasun sexuala	Elikadura	Mindfulness	Kudeaketa emozionala	Indarkeria Matxista	Autodefentsa feminista	Feminismo anitzak	Oinarrizko brikolajea	Asertibitatea	Festa parekideak	Adierazpen artistikoa
Lesbiana, bisexual eta zehaztugabeak	%75	%59	%60,3	%68,1	%63,6	%85	%57,4	%80	%60	%50	%70	%50
Heterosexualek			%55	%63,6	%74,5		%75					

Bestetik, ikusi daiteke nola heteroarautik kanpo dauden emakumeek sexualitatearen lanketarekiko (*sexu osasuna* eta *aniztasun sexuala*) interesa adierazi duten, baita indarkeria matxista (*indarkeria matxista* eta *festa parekideak*) besteak beste.

Azkenik, ikusi dezakegu *elikaduraren bitartez autozaintza*, *mindfulness*, *kudeaketa emozionala* eta *autodefentsa feminista* direla sexu orientazioaren gaitetik orioko emakumeek partekatzen dituzten beharrak.

Aniztasun funtzionalaren arabera aukeraketa

Aniztasun funtzionala ardatz hartuta, ikusi dezakegu nola aniztasun funtzionala duten emakumeek behar eta interes gehiago adierazten dituzten. 3.4 taulan ikusi daiteke baita ere nola aniztasun funtzionala dutenek aukeratutako jarduera batzuk gorputzaren lanketarekin dauden lotuta: *zoru pelbikoaren lanketa*, *dantza*, *ikusmen konzientea* eta *gorputz adierazpena*. Sormenarekin lanketa bultzatzen duten beste jarduerak ere (*joskintza* eta *antzerkia*) nabarmendu dituzte beraien aukeraketetan.

3.4. Taula: Aniztasun funtzionalaren arabera aukeraketa

	Zoru pelbikoa	Aniztasun kulturala	Maitasun erromantikoa	Elikadura	Mindfulness	Kudeaketa emozionala	Indarkeria Matxista	Autodefentsa feminista	Dantza	Oinarrizko brikolajea	Aserbitatea	Ikusmen konzientea	Joskintza	Gorputz adierazpena	Antzerki	Autoantolakuntza
Bai	%62,5	%62,5	%50	%62,5	%62,5	%50	%62,5	%62,5	%75	%50	%75	%50	%50	%50	%50	%62,5
Ez				%61,1	%73,3	%75,6	%55	%64,5		%50,4						

Ala eta guztiz ere, badaude emakume guztiek egindako aukerak: *elikaduraren bitartez autozaintza*, *Mindfulness*, *Kudeaketa emozionala*, *Indarkeria Matxista*, *Autodefentsa feminista* eta *oinarrizko brikolajea*.

Informazio guzti honetatik, hainbat **ondorio** atera daitezke:

1.- Orokorrean, emakume izateaz gain beste ardatz batzuk kontutan izanda *diskriminatuak direnak* (atzeritarrak, heteroarautik ateratzen direnak eta aniztasun funtzionala dutenak) *behar eta interes gehiago* adierazi dituzte orioko emakume izaera hegemonikoa betetzen dutenak baino (euskaldunak, heterosexualak eta aniztasun funtzionalik gabekoak).

2.- Diskriminazio ardatz ezberdinetatik zeharkatuta dauden emakumeek *ardatzaren arabera beharrak* azpimarratzen dituzte, hau da:

a) Emakume lesbiana, bisexual eta zehaztugabeko orientazioa dutenak sexualitatearekin lotutako lanketekiko interesa adierazi dute.

b) Atzerrian jaiotako emakumeek aniztasun kulturala ardatz dituen lanketekiko interesa adierazi dute.

d) Aniztasun funtzionala duten emakumeek gorputzarekin lotutako lanketen beharra nabarmendu dute.

3.- Ala eta guztiz ere *emakume guztiok elkarbanatzen* ditugu orion emakume izatetik bizitako beharrak:

a) *Autozaintza beharra*: bai alderdi *fisikoan* “elikaduraren bitartez autozaintza” jardueraren aukeraketa bitartez baita alderdi *emozionalean* “mindfulness” eta “kudeaketa emozionalaren” bitartez.

b) *Indarkeria matxistari aurre egiteko baliabideak* beharrezkoa direla adierazi dugu emakume guztiok “autodefentsa feminista” aukeraren bitartez.


3.2.- Emakitzaren kualitatiboak

Lehenik eta behin, atal honetan parte hartu duten emakumeen ezaugarriak deskribatuko ditugu. 42 emakume hartu dute parte talde eztabaidetan. Orioko emakumeon aniztasuna ahalik eta gehien jaso nahi izan dugu. Horretarako ardatz moduan diskriminatzaileak izan daitezkeen ezaugarriak izan ditugu kontutan: adina, jatorria eta sexu orientazioa. Datozen lerroetan aurkezten ditugu emakume hauen ezaugarri garrantzitsuak.

3.2.1.- Parte hartzaileak


Talde eztabaidetan parte hartu duten emakumeen *adin* tartea 15 eta 83 urte bitartekoa izan da eta gehiengoak (%35,7) 18 eta 30 urte bitartean kokatzen da.

3.1. Grafikoa: Parte hartzaileen adina




Jatorriari dagokionez, hiru multzoetan banatu ditugu. Alde batetik Euskal Herrian jaiotakoak, beste alde batetik Estatu espainiarrean eta azkenik atzerrian jaiotakoak. Bereizketa hau egiteko orduan, gure helburua errealitate ezberdinak ikustaraztea izan da. Badakigu Estatu espainiarretik etorritako emakumeek orokorrean orion integratzeko eta sare sozial zabal bat izateko zailtasunak dituztela, hizkuntzagatik besteak beste. Honek, emakume euskaldunak baina egoera zaugarriago batera eraman ditzakete. Atzerritarrekin berriz, egoera gehiago larritzen da, emakume hauek, euskera ez hitz egiteaz gain kasu askotan arrazakeria eta beste hainbat diskriminazio bizi dituztelako. Grafikoan ikusi daitekeenez talde eztabaidetan parte hartu dutenen %80a Euskal Herrian jaiotakoak izan dira.

3.2. Grafikoa: Parte hartzaileen jatorria



Talde eztabaidetan parte hartu duten 42 emakumeetatik %61,8ak heterosexuala dela esan du, %23,5ak lesbiana, %8,8ak bisexuala eta %5,9ak zehaztugabeko sexu orientazioan kokatzen da. Datu hau jasotzeko arrazoiak, heteroaraua hausten duten pertsonen kontrako diskriminazio eta indarkeria kontutan hartzea izan da. *Sexu orientazioak* heteroaraua betetzen ez denetan egoera zaugarriago batetara eraman gaitzake.

3.4. Grafikoa: Parte hartzaile sexu orientazioa



3.2.2.- Eztatbaida taldeak

Eztatbaida taldeak osatzerakoan Orioko emakume antolatuetara jotzea izan zen gure lehen ideia. Elkarrekin biltzeko joera izango zutelako eta errazagoa egingo zitzaigulako beraiekin taldean elkartzea. Guretzat garrantzitsua zen taldeztatbaidako partaideak eroso eta seguru sentituko ziren espazioan bermatzea, beraz, beraiek proposatutako espazioetan elkartu gara. Burura etorri zitzaigun lehen taldea **Xaltxerak talde feminista** izan zen, Orion ikuspegi feministatik hausnarketa sakona egindako emakumeak bezala identifikatu genituelako, eta Xaltxerakeko kide batek eskainitako espazioan elkartu ginen. Ondoren, **Orio Feminista** izeneko whatsapp taldeko partaideei deialdia egin genien, pasa den martxoaren 8a antolatzeko sortu zen Orioko hainbat emakumez osatutako taldea da, 54 emakumez osatua, eta Salatxo aretoan izan genuen hitzordua. **Etxeluze gaztetxeko** neskekin Etxeluzen bertan elkartu gara beren ikuspegia jasotzeko eta 15-16 urteko **nerabe taldearekin** Salatxo aretoan.

Emakume helduagoen ahotsa jasotzeko **esperientzi eskolara** jo genien eta bertako emakumeekin egon ginen. Guretzat oso garrantzitsua izan da hasiera batetik Orioko emakume anitzen ahotsa jasotzea, beraz, argi genuen migrante talde batekin edo bertakoa ez den kulturako jendearekin elkartu behar genuela. Ez zitzaigun oso erraza egin emakume migratu edo kulturantzak elkartzeko deialdi hori zabaltzea, eta, azkenik, mezkitan elkartzen diren **emakume arabeen** berri izan genuen, eta mezkitarra gonbidatu gintuzten ramadana amaitzeko pare bat egun gelditzen zitzaizkiela.

Orioko errealitateen argazki zabalago bat osatzeko argi genuen **Orioko lesbianen** ahotsa jaso behar genuela. Gertuko pare bat lagun lesbianekin hitz egin genuen eta lesbiana talde bat osatu zuten, Etxeluze gaztetxean elkartu ginen hauekin talde-eztatbaida egiteko.

Aipatutako 7 talde hauekin elkartu gara Orioko emakumeen errealitatearen diagnostia osatzeko. Orion emakumeak dauden adina errealitate izango dira, noski. Baina emaitzetan argi ikusi dugu badaudela gai batzuk emakume guztiei eragiten dietenak. Jarraian zehatz azalduko dizkizuegu talde-eztatbaidetatik jaso ditugun adierazpen eta bizipenak.

3.2.3.- Emaitza orokorrak

Aurretik azaldu dugun moduan, ahalduntze eskolaren diseinuaren oinarria eta , beraz, inkestak eta talde-eztatbaidak 5 gai multzoetan banatu ditugu: **Gorputz eta osasuna, Autoestimua, Indarkeria Matxista, Sormena eta Saretze eta parte hartzea**. Eztatbaida taldeetan ateratako informazio guztia ordenatzerakoan eskema hori egokitu behar izan dugu. Alde batetik, autoestimua atal moduan desagertu da atal guztietan duelako presentzia, hau da, zeharlerro bezala ulertu dugu. Badaude gai batzuk diseinuan aurreikusi ez genituenak, baina, talde-eztatbaidetan izan duten garrantziagatik espazio bat eskaintzea erabaki dugu: **zaintza eta espazio publikoaren erabilera**. Ondorengo lerroetan multzo bakoitzeko emaitzak azalduko ditugu.

a. Gorputza eta osasuna

Atal honetan sexualitatea eta sexu osasuna, edertasun ereduak eta kirola eta kirol baliabideak gaiak jorratu ditugu.

a.1. Sexualitatea eta sexu osasuna

Sexualitatearen gaia aztertzean talde-eztabaidetan hainbat arlo atera dira: hilekoari buruzko bizipenak, desio sexualaren adierazpenarekiko zaitasunak, aniztasun sexualaren bizipena eta sexualitateari buruz hitz egiteko zailtasunak, osasun sexualaren ardura, osasun zerbitzuen tratu eta ikuspegia eta formakuntza falta.

“Sí se echan de menos talleres o charlas sobre sexualidad. Porque de estos temas no hablamos. Estas conversaciones no los hemos tenido nunca y no los vamos a tener entre nosotras.” (Esperientzia eskola)

Ikus dezakegu hilekoaren gaian aurrerapenak eman direla, nerabeek gazteek baino era naturalago batean bizi dutela adierazi baitute.

“Regla oaindik ze tabu haundiya dan emakume danak bizi deunen” (Etxeluze)

“Lasai asko esate deu klasen komunea jun nahi deula ze reglakin gaudela. Leno gehio mozte giñan, berriyo zalako guretzat” (Nerabeak)

Ikus dezakegu emakumeok zaitasunak ditugula gure desio sexualak publikoki adierazteko, zigor sozialaren adierazle.

“Askotan lotsa emateigu guke desio sexualak dazkaula onartzia.” (Etxeluze)

“No hablamos de estos temas, pero necesidades ¿por qué no vamos a tener necesidades?pero claro, no hablamos.” (Esperientzi eskola)

Orion heteroaraua sustraitua dago eta arautik at gelditzen direnak ez dituzte erreferenteak eta sexu aniztasunarekiko mezu negatiboak jasotzen dituzte.

“Lesbiana guztik pasa deu gaxki gure bizitzako fase baten. Arranke hori... Dolu bat bezela bizi deu gure sexualitatian onarpena” (Lesbianak)

“Pelikulak, seriek, anuntziyok... eske oso gutxi dia harreman lesbikok bisibilizatzeituenak!” (Lesbianak)

Talde ezberdin eta errealtate ezberdinetatik formakuntza beharra ikusten da.

“Txarлак eta hola eztiа iten. Zeoze dakazula ta matronana jute zea anbulatoyoa, baño hortaz aparte ez” (Orio Feminista)

“Gero nik ikustet sexu osasun edo gorputzaren ezagutza hortan ama bezela... Ni enaiz goratzen txikitan alua ikutze nunen ze pasatze zan baño nik ikustet nere seme alaben prozesun ikutzeianen begitara ze sortzeun, nik naturaltasunez nahi det eraman baño aitzeian komentariyok... nei hori gogorra ite zait, irakasle batek esateit: Pititua ikutzen geyegi eotea. Ta nik ustet naturalki beak utzikoula hori itia. Irakasle batek hori esatia... bai iruitze zait heziketa ber deula. Segun nun lan itezun heziketa bat jaso behar deu. Bestela tabu hoyek sortzeitugu. Zergatik eztitugu publiko iten gure sentimenduk?” (Orio Feminista)

“Ikastetxen ondo eongo litzake sexologa bat etortzia asten egun batzutan, konfiantzazko pertsona bat, ta guk bere ordutegik euki ta nahi deun kontsulta itea jutia” (Nerabeak)

“-Keba, eztue ezer eakusten. Liburuk irakurrita ta hola jute zea ikasten baño zure kabuz

-Bai, eta gaur egun, bideok. Baño zuk inber dezun lan bat da, herri mailan eztao zerbitzuik.

Udalak bere aldetik eztu aurreikusten hau osasuna da eta inportantia da, ta jarri berdeu zerbait” (Orio Feminista)

“Eskoletan ere gauz gutxi. Itea esateko iteala. Ezta esfortzu haundiyik jartzen gai hauetan” (Orio Feminista)

“DBHn ibiltze giñanen eukitze genitun sexualitate sayotan kondoya jartzen erakuste ziguen, baño ezgaude informatuta sexu harreman lesbikotan dauden arriskutaz. Ematezun lesbiana izanda gaxotasun guzti hoyetatik libre ziñala...” (Lesbianak)

Etxeluzeko gazteek adierazi dute nola sexu osasunaren ardura guztia emakumeon gain erortzen dela.

“Horren informatuta gaude... sexologia eman digue... etxen nahiko libre hitzein izan deu sexuataz, geyen bat amakin. Esan nahi det, oso era irikin eraman deu gai hori ta esate nun: zeba allatze naiz egoera honta? Ez naiz babestuta sentitzen. Lotsa... informaziyua eduki det eta halare hau pasa zait... mutil batek eztu hori bizitzen. Nik izan ber det perfekta... kontrolatu...” (Etxeluze)

Aldi berean osasun zerbizuen tratatu eta ikuspegi desegokia adierazi dute talde ezberdinetatik.

“Nere lagun bat haurdun gelditu zan, meikuana lagundu niyon abortatu nahi zulako, epaia sentitu nun. Oso gogorra izantzan. Oso bruskoa izantzan... osakidetza baten nao?benetan?” (Etxeluze)

“Oriyoko matronak oso ikuspegi heteronormatibua daka”(Xaltxerak)

“Nei gertatu zait ospitalea jun ta aurreneko galdera: haurdun zaude? Nik: Ez. Haurdun eoteko aukeraik bakazu? Ez. Bikotia dakazu? Bai. Harreman sexualak eukitzeituzue? Bai. Protekziyuakin beti? Ez. Ordun haurdun eoteko probabilidadia hor dao... Ta nik ezetz. Nola zaude hain seguru? Nik: Nere neska kanpon dao... beai galdetu... Meikua lotsatu intzan, barkamena eskatu zian” (Lesbianak)

Gainera, osasun fisiko eta mentala zaintzeko zerbitzu faltak adierazi dituzte.

“Erditzek eta geo zure barrua aldatu itea eta oso osasun baliabide gutxi eskaintzeia. Edo zuk ordaintzezu ta zure kabuz itezu o... baño etzazu ezer eskaintzen” (Orio Feminista)

“Osasun mentala ezta bate zaintzen. Ansiedadia, depresiyua... nik uste asko daola, baño ezta esaten” (Nerabeak)

a.2. Edertasun ereduak

Ikusi dezakegu nola Orioko adin guztietako emakumeei zeharkatzen dien edertasun ereduak betetzeko presioak. Gainera, edertasun ereduaren arauak ezberdinak dira adin bakoitzarentzat, esperientzia eskolakoek adierazten duten bezala. Gure gorputzaren bizipena eta hau adierazteko modua ez da askea.

“También el tema de la imagen. Una mujer de joven tiene que vestirse de una manera, a partir de 50 años de otra. Nosotras nos vamos a vestir cómo nos de la gana!” (Esperientzia eskola)

“Eztigie inbitatu gure bizitzan gure gorputza maitatzea, eguneroko borroka da” (Xaltxerak)

“Eztao gaxki depilatzea, eztao gaxki makillatzea baño ezta erabaki libre bat” (Etxeluze)

“Oain, udara datorrela, depilatu in ber da. Ni depilatu ingo naiz, baño etzait gustatzen. Miña emateit ta nei hanketan ilek eukitziak ezit molestetzen. (Nerabeak)

“Hurrengo urten Batxiako eguneroko erropa pentsatzen bakarrik... inseguridadia emateit: toki berriya, jende berriya...” (Nerabeak)

“Nei anayak erropakin krixton presiyua sartzeit. Enaiz bate arreglatzen, nei pintakin ibiltzia gustatze zait. Ikusteit ta galdetzeit: Hola jun altzea klasea? Bai. Pinta hoyekin?” (Nerabeak)

a.3. Kirola eta kiroletako baliabideak

Orion kirola egiteko baliabide nagusietako bat polikiroldegia da, eta talde-eztabaidetan parte-hartu duten guztiek adierazi dute ez dela espazio seguru eta eroso bat emakumeentzat.

“En el polideportivo nada más entrar te miran, te hacen un radio” (Arabeak)

“Ni behin sartu naiz horko gimnasia eta bueno... eskaparate baten sentitze zea. Esaten dezu: nik ze itet hemen? banoa!” (Orio Feminista)

“Aurrekon neska bat komentatzen eontzan zenbat kostatu zitzaion bere lekua itia kiroldegian, oso obserbatuta sentitze zan” (Etxeluze)

“Polideportibon lotsagarriya da nola dauden kokatuta makinak” (Lesbianak)

“Beayen terrenon sartze zea eta arrotz sentiarazteizue han” (Orio Feminista)

“Muskulatura lantzeko zona sartzeko permisua eskatu ber dezu... Mutillak beayen etxen bezela: gimnasiyon txankletetan telebistako manduan ta musika aparatuan jabe, pasillotik toalla gerrin duela...” (Lesbianak)

Emakume arabeek emakume guztiontzako espazio ez mixtoak aldarrikatzen dituzte seguru eta eroso sentitu ahal izateko. Horrez gain, kritikatu da emakumeentzat sortutako kirol jardueretan entrenatzailea edo dinamizatzailea gizonetako izatea. Gainera, esperientzia ez mixtoak izan dituztenek oso era positiboan baloratzen dituzte.

“En otros sitios se ofrecen en los polideportivos espacios para mujeres, horarios en la piscina...” (Arabeak)

“Ai dia politik emakumei beirako ekintzak sortzen ‘Emakumeak korrika’ ta entrenatzailea mutilla...” (Lesbianak)

“Nei etzait burun sartzen emakumen kirola eta gizon entrenatzailea. Nei indarkeriya iruitze zait.” (Xaltxerak)

“Emakumeok Surf Campea jun giñanen ze earra! Lotsa... danak alde batea utzita.” (Xaltxerak)

Hau guztiaren adierazle dira, autoantolakuntza esperientzi eta taldeak Orion: Zergatik ez, emakumeen surf taldea... Eta behar hauetatik hainbat proposamen egin dira.

“Oain ai gea beiratzzen Oriyoko emakumek surf kedada bat antolatzia... Baño ezta hain errexa. Materiala ta...” (Lesbianak)

“Neskan kirolakin agenda bateratu bat sortzia etzan gaxki eongo. Ze mutillan partidu, estropa, kanpeonato eta barretaz informatuo eote gea” (Lesbianak)

“Oriyon eztazkau kirolak: zumba feminista, boxeo, piragua, igeriketa erriyon, surfa, patiak, bizikleta...” (Xaltxerak)

“Eskalada ikastarua re ondo eongo zan. Talaimendin bado rokodromua, polikiroldegin debai...” (Lesbianak)

“-Piraguismo.

-Hoi eskatu in behar da! Holako cluba eukita...” (Orio Feminista)

b. Zaintza

Zaintza bizitza sostengatzeko oinarria da. Arazoa da zaintzaren ardura osoa emakumeoi egotzi zaigula eta honek gure bizitza osoa baldintzatu du eta baldintzatzen jarraitzen du. besteen zaintzan sozializatuak gara, gure buruaren zaintzaren gainetik.

“Cuidar es un gran trabajo, es mucho trabajo” (Arabeak)

“Yo no he tenido mucha opción, siempre cuidando niños. Desde que era chavala que era la segunda de 8 hermanos. Luego me casé y dos más, más una cuñada que se quedo viuda y le tuve que ayudar. Así que termine de los niños... No he tenido otra opción” (Esperientzia eskola)

“Ingenun lanketa bat gaztetxeko ardurak nola banatu, ze mutillak beti musika tekniko ta hola itezuen ta guk barra garbitu ta...” (Etxeluze)

“Nei ama izanda gertatze zaitena, kirola itea zuaz eta: noa zuaz ume gabe? Kirola itea? Eta umek nun daude? Eta hori milla aldiz, askotan entzun det. Hori seguruenik gizonei etzaie galdetzen” (Orio Feminista)

“- Nere kasun denda batetik deitu zien, oso lan polita zan ta gustoa neon baño aitak esan tzun, ama edade horrekin ta etxen bakarrik? Zu itxea lanea, bueno, amai kontu itea. Nere gurasokin gelditu nitzan, geo nere gizona etorri zan nere etxea bizitzea baño ezta izan traumaik. Oso gustoa sentitu naiz nere

gurasoi kontu iten, bai nere familiya hazten. (Esperientzia eskola)

*“Hezi digue besten beharrak asetzeko, ez norbean beharrak asetzeko”
(Xaltxerak)*

d. Espazio publikoaren erabilera

Hasiera batean ez genuen aurreikusita espazio publikoaren erabilerearen inguruko azterketa bat egitea, baina, gorputza, kirola eta indarkeri gaiak lantzean espazio publikoaren erabilera behin eta berriro aterata den arloa izan da. Hortaz, gai honi atal bat eskaintzea erabaki dugu.

Atal honetan hiru mezu nagusi ondorioztatzen ditugu. Alde batetik, espazio publikoaren erabilera lotsak eta beldurrak limitatuta bizi dugu.

“Ni behin o behin lagunen batekin gelditu korrika iteko eta ahal deun ixkutuna ibiltze gea. Herriko erdigunetik ez gea pasatzen korrika, lotsa emateu” (Orio Feminista)

“Oriyon adibidez olatuk daudela eta surfa itia... bueno, nayoet Hendaya jun o beste nunbaitea Oriyon hasi baño... Lotsagatik” (Orio Feminista)

“Gero, nei mendi buelta bat itea bakarrik jutia re emateit erreparua. Nik bazkat lagunak Oriyon bidek eztituenak ezautzen eta eakustea jun eta, hemen jendia ibiltzea? Ta holako galderak ite gea. Nik ustet mutil batek eztitula holako galderak planteatu re iten” (Orio Feminista)

“Kirol indibidualo, ta leku itxin ta jende gutxik ikustia. Ni enaiz atrebitu etxetik plaia korrika itea juten bakarrik, jendiak beiratu...” (Xaltxerak)

“Ni asko jute naiz itxaspeko buelta itea bakarrik. Amak esateit: Bakarrik zuaz? Nayo du beste batekin jute banaiz. Baño nik askotan bakarrik nahi izatet jun. Ordun, esateit: Allatze zeanen mensajia bialdu, ta yasta” (Nerabeak)

“Ni itxaspea 8atik aurrea enijua bakarrik, ni itxaspeko segun ze lekutan gaez enaiz seguru sentitzen. Goiko kalen de enaiz seguru sentitzen...” (Etxeluze)

“Joe, gauetan, goikokaletik barrena korrika sayo earrak bota izan ditut! Farolak eztue asko iluminatzen, argi horixka iluna dake” (Lesbianak)

*“Gauetan, parrandatik etxea bidia bildurrez ite deu. Entzuteian gauzagatik”
(Nerabeak)*

“Parrandatik bueltan kalen norbait ikustezunen ta norbait hori neska dala kontuatze zeanen krixton salbada da!” (Nerabeak)

“Nei behin o behin pasa zait tabernan eon, agertzeanen makina bat, jokuna, indibiduala, mutilak ingurun jartzeia ingurun makinai bum da bum! Ezin dezula ezta ondokuakin lasai hitzein... ta gero zeoze esateyozu ta Hi! Ixildu hai!!” (Orio Feminista)

“Tabernak, arraunetxia, kiroldegiya... ta bueno, Orioko (futbol taldea) gizonenak dia” (Etxeluze)

“Gizon matxito bat bazea herriya zuria da. Komodo, komodo hondartzan, gimnasiyon... nik hemen eztet nere tokiya billatzen” (Nerabeak)

Bestetik, Oriori buruzko iruditegi sinbolikoan ez dago emakumeontzako lekurik. Eta, azkenik, adierazpen kulturaletan genero rol tradizionalak indartzen dira.

“Lengo urten San Pedrotan ezkontza tradizionalan eguna jarri zuen juxtu ekainak 28n, sexu aniztasunan egunen... Ni indignatu in nitzan, krixton tripako miña!” (Lesbianak)

“Autopistako sarrerako rotondan ORIO jartzeun kartelen arraunlari mutillan argazki bat dao ongietorriya iten...” (Lesbianak)

e. Indarkeria Matxista

Indarkeria matxistaz hitz egitean, Gipuzkoako Foru Aldundiak 2014-ean argitaratutako dokumentuan oinarritzen gara [<http://www.irun.org/igualdad/down/Terminologia-Indarkeria-matxistaren-arloko-kontzeptuak.pdf>]. Honen arabera, indarkeria marxista, “*tradizioz esleitutako genero-
eskema (intersexualak, transgeneroa, transexualak, homosexualak, lesbikoak, eta ohiko sexu/genero
eskema birsortzeari uko egiten dioten emakumeak eta gizonak) apurtzen dituzten gorputzei espazio fisiko
eta sinboliko guztietan egiten zaizkien indarkeria mota guztiak barnean hartzen dituena.*” da.

e.1. Lesbofobia

Sexualitatearen atalean azaldu dugun bezala lesbianek mespretxuak, bazterkeria... deseroso sentitzen dira, horren ondorioz, lesbiana askok ez dute beren lekua Orion aurkitzen eta herritik joaten dira. Bestetik, gai honekiko sentsibilizazio eta formakuntza falta azpimarratu da.

“Ta neskaik eztaikit, lesbianaik etzait etortzen...Jendia jun itea herritik!...Badaudez gizonakin separatu ta emakume batekin hasi dianak, baño igual kanpoa jun dia oriyotik, bai” (Orio Feminista)

“Oriyon lesbianak emateu eztaudela. Dakigun batzuk badakigu herritik jun in diala, eta horrek herriyan ingurun asko esateu.” (Xaltxerak)

“Nik ustet leno etzala aukera bat zure herrin gelditzia” (Lesbianak)

“Kaletik pixkat atento bazuaz beiratuk eta komentayok sumatzeituzu...” (Lesbianak)

“Herri hontan morbo haundiya dao... Morbua ideologia matxista batetik eraikita” (Lesbianak)

“A ber zenek esateun Oriyon bollera dala! Porque vamos... Nei lotsa emateit, ta ez nere burua eztekelako onartzen. Herriko jendia nolakua dan bakitelako...” (Nerabeak)

“Hasiera baten danok onartze deu homosexualitatia, baño , gero, atzetik, komentayok daude...” (Nerabeak)

“Nik egunerokotasunen matxismo geyena klasen ikustet” (Nerabeak)

“Eske oso injustua da. Zeatikan beti bipolaridade hoyetan ibili ber deu? Heterua zea o geya zea. Edo neska zea, edo mutilla zea. O eskubiya o ezkerria. O txuriya o beltza... Eske danen da! Puff Posibilidade guztik sartzeia ta hori eztaikau bate onartuta” (Etxeluze)

“Hetero dianak eztaue esaten: Ei ni Maidier naiz ta hetero naiz! Ta guri presiyo hori ite zaigu. Ze behar dao?” (Lesbianak)

“Nik eztaikit baño 60 urte inguruko jendiak igual ber du heziketa moduko zerbait. Ze ni aurrekon amakin hitzeiten ta txokatu intzian. Esplikatu izan dixkiyot LGTBIQ sigla bakoitzak ze esan nahi dun ta eukitugu holako konbertsaziyok. Ta aurrekon esan niyon lagun bat oain arte bikote neska eukiuna, lesbiana bezela identifikatuta genekana, oain mutil batekin hasiala ta loca! Baño hori nola? Etzitzayon sartzen! Ama, ta bisexualitatia ze? Oain arte esplikatu xkizuten gauza guztik ze?” (Orio Feminista)

e.2. Indarkeria Sexista

Indarkeria sexista, “tradiziozko sexu/genero eskeman emakume gorputz sinbolizatu guztiek espazio guztietan pairatzen dituzten indarkeria molde guztiak” dira [<http://www.irun.org/igualdad/down/Terminologia-Indarkeria-matxistaren-arloko-kontzeptuak.pdf>].

Talde-eztabaidetan Orion emakumeok bizi ditugun indarkeria sexista adierazpenak ikusarazi dituzte. Alde batetik esperientzia eskolako emakumeek indarkeria jasateko eta beren burua ez babesteko sozializatuak izan direla adierazi dute. Bestetik, gazte eta nerabeek salatu dute herrian bizi dituzten indarkeria sexuala eta eremu ezberdinetako diskriminazioa.

“Hemos hecho lo que han querido que hiciéramos, no lo que hemos querido nosotras. Así de claro. Hemos trabajado en lo que ellos querían. Querían que estuviéramos siempre en casa y ser amas de casa.” (Esperientzia eskola)

“- Entonces una mujer aguantaba todo lo que le echaban.

-Nos han criado así, para aguantar todo lo que te echen.” (Esperientzia eskola)

“Yo digo una y mil veces, ahora me siento más libre que cuando tenía 40 años.” (Esperientzia eskola)

Adierazi dute nola behin eta berriro esaten digute emakumeon lekua familia dela, gure ikasketa eta garapen profesionalen gainera.

“Ta familin: Pareja noizko? Bueno, ya neska o mutilla noizko galdetzeue, horreaño allatu gea. Baño, ni bigarren karrera ikasten ainaiz ta iñorrek eztit esan ber ezer horregatikan?” (Etxeluze)

“Ta oaindikan entrebistetan, nei adibidez pasa zait, galdetu berren zein dian zure puntu fuertek, galdera normalak in berren, aber pareja bakazun... aber ze idea dakazun... ta, berez, gure eskubiden gaude esateko galdera horrei eztiyot erantzungo, baño, klaro! Lan hori nahi dezu ta, puff... Nik inda dakat pareja euki ta esan eztakatela” (Etxeluze)

Bestetik lan eremuan ere diskriminatuak eta erasotuak izaten gara Orion.

“Bai barran lanen askotan eztekaulako zea hori... Eh! Musika itzalikoet, argiya piztukoet, ta porkulo hartzea bialdukoet... ta bakitelako gañea, igual argiya piztuta eztetela jendian apoyo hori eukiko” (Etxeluze)

“Ni bakarrik nao barran alde hontan ta hor pilla bat zaudete... Beste

posiziyo baten zaudete” (Etxeluze)

“Nere lankide mutillana juteia zuzenen, nei eskibatuz. Ta lankiden batek e behin o behin esan dit: -Utzi, nik aldatukoet errueda.

-Baño nik hartuet eta katua... nik ingoet...

Beai baño geyo kostako balitzaiake bezela” (Lesbianak)

Aisialdi eremuan ere indarkeria sexuala eta bazterkeria ematen da gure herrian.

“Hilabete bat iraun genuen lokala mutilakin konpartitzen. Etxituen adostutako baldintzak errespetatzen. Nazkatuta jun in giñan. Esateigüe gu jun giñala, baño biali intziguen beayen jarrerakin.” (Nerabeak)

“Oriyoko mutil gazten jarrerak tabernetan atentziyua deitzeu. Kubata haundiya eskun hartuta pasatzean neska bakoitzai nota jartzen... Eske ikusteituzu gauza hauek eta etzaude tabernan komodo. Ta ni baño dexente gaztio dia eh! baño halare...” (Lesbianak)

“Parrandan nola ligatzean... Mutillak ipurdiya ikutzeizue... holako gauzak bai, presentziatuitut” (Nerabeak)

“Nei adibidez, tipo batek 3 aldiz ikutu zian ipurdiya. Aurrenengua nahi gabe izango balitz bezela, roce bat... Komunea juteakon... igual nahi gabe... sin mas, garrantziyik ez. Hurrengon, heldu intzian, buelta eman nun, krixton beiratua bota niyon, parre intzian, sutu initzan, buelta erdiya emateako berriz! Ta buelta eman nun bezela masalleko bat eman niyon. Sekula etzait gertatu ta Oriyon gertatu zait.” (Etxeluze)

“pare bat gazte, 20 urte inguruko mutilak, pare bat festa in dianen oriyon, zeudela beira aber ze neska zijuan oso mozkorra... beataz aprobetxatzeko” (Orio Feminista)

Behin eta berriro sentitzen dute frustrazioa, babes falta eta beldurra.

“Cada vez hay más miedo” (Esperientzia eskola)

“Ta ezautze deu jendia rebai etxea biden baten bat atzetik... Bildurtuta...” (Etxeluze)

“Parece que a los hombres les gusta que las mujeres digan no” (Esperientzia eskola)

“Autodefentsako sayua gustoa ingo genuen” (Nerabeak)

e.3. Genero indarkeria

Eta genero indarkeria, *“indarkeria sexista, edozein moldetan, bikotekideak edo bikotekide ohiak egiten duenean. Indarkeriazko egintza oro, fisikoa nahiz psikologikoa, baita sexu askatasunaren aurkako erasoak, mehatxuak, derrigortzeak edo nahierara askatasunaz gabetzea ere, gizonezkoek beren ezkontide diren edo izan diren emakumeei, edo haiekin antzeko maitasun harremanak dituzten edo izan dituzten emakumeei ezartzen dizkietenak, nahiz eta elkarbizitarik ez izan.”*

[<http://www.irun.org/igualdad/down/Terminologia-Indarkeria-matxistaren-arloko-kontzeptuak.pdf>]

Emakume helduenek genero indarkeriaren identifikazio garbi bat eman digute talde-eztabaidetan eta gazteek gertuko harremanetan indarkeria mota hau identifikatzeko zailtasunak adierazi dituzte.

“Nik nere gizonakin ikustet, zeozarren ingurun hitzeitenen nola jartze zaiten... Zuk eztakizu ta ixo! dana rebotatuta... Txikituko nike! Beak geyo zekin, danai buruz, ta zapaldu ite nau. Esateyot: nei eztiazu zapalduko eh! Baño zapaldu iteit, nik ezer ezbanun jakingo bezela. Kaka zutzat! Edaden aurrea dijuan bezela geyoa dijua gaña. Leno etzan hainbeste” (Orio Feminista)

“Yo por ejemplo cuando me saqué el carné de conducir, cuando iba con mi marido al lado todo era machaque. Todo lo hacia mal, cada vez que cogía el coche. Hasta que dejé de conducir” (Esperientzia eskola)

“Nik ustet herritan asko gertatzeala... Ezagunak dian pertsonangan onartzia erasua izan dala asko kostatzea, porke eztakit zenen anaya da... eztakit zenen laguna da... eztakin zenen mutilla da... ta gure kuadrillan bolada hontan asko ateratzen ai dan gai bat da. Porke oso gertutik tokatu zaigun gai bat da. Kanpoko pertsona batek etorri ber izan dula esateko: Hori kasi maltratatzaille baten postua da, eta eztezue jakin identifikatzen oain arte. O eztezue onartu nahi zuen buruai.” (Etxeluze)

f. Saretzea eta Parte-hartzea

Jakin badakigu Orion emakume erreferenteak badaudela, baina ez dira erreferentzialtasunarekin tratatzen, ez dira ikusgarri egiten eta ez da beren eremuan egindako lana behar bezala baloratzen. Honek gure erreferenteak herritik kanpo kokatzen ditu eta herrian gure saretze eta parte-hartzea mugatu egiten du.

“Eske gure historiya re ezteu ikasten, utzi ite deu gure historiya bestek idaztia, beti gaude albo baten. Beti bigarren planon gaude... Nekagarriya da” (Orio Feminista)

“Nei etortze zait... atzea beiratzet eta nere amona, nere ama, nere izeba... ezta emakume antolatuk izan, guk ezta ere antolatuik. Emakumen arteko gatazkak geyo bultzatzea gure arteko sarezia baño...” (Xaltxerak)

“Nik Oriyo baten ezta erreferenteik. Zarautzen ta Donostin bai” (Lesbianak)

“Nei saregilen erreferentziya etortze zait. Kriston borroka indue lan baldintza hobek lortzeko ta ezta ezer. Oriyon emakume eredu pilla daude, baño ezta plazaratzen.” (Xaltxerak)

Gainera, parte-hartzen dugunean, batez ere eremu mixtoetan, gure ahotsa ez da gizonen ahotsaren adina entzuten.

“Nire gaztefestak antolatzen ta ibiltze naizela ta normalen banaiz hitzeitekoa, baño kontuatzen naiz talde haundin kosta ite zaitela eske etzait kasoik iten. Ta mutillak esateuen txoakei bakoitzai kaso ite zayo. Gero naiz la historica esateuna ezta zuela kasoik iten...Horrek debai iteu azkenen ahotsa hartze hori bi aldiz pentsatzia” (Orio Feminista)

“Gaztefesten ingurun hasi zian neska talde bat etortzen ta pilla bat kostatu zaye hitzeitia, parte-hartzia...” (Etxeluze)

“Eske gure ahotsa ez bada aitu ber zerta jungo naiz, zertako parte hartukoet nunbaite...” (Orio Feminista)

Egoera honi buelta emateko hainbat proposamen dituzte emakume talde anitzek.

“Netzako holako ikastaro bat izango litzake disfrutatu baño geyenbat jendia ezautu ta hola... Beste bat igual jungo litzake teknika lantzea ta burua hortan euki. Perspektiba igual era horta enfokatuta, ez profesionalak edo lehiakorak izatea bideratuta” (Orio Feminista)

“Ni Usurbilgo ahalduntze eskolatik emakumentzat antolatutako mendi orientaziyoko ikastaroa jun naiz ta oso gustoa!” (Lesbianak)

“Bi moduak landu berko genitun: kolektiboki babesa eta indibidualki autoestimua” (Xaltxerak)

“Quieras que no al ir a aprender castellano te relacionas también con otro tipo de personas, nos sólo con tu grupo.” (Arabeak)

“Nik aprobetxatu nahi det esateko, behingoz bollera batzuk elkartu geala LGTBI harrotasun egunen, Oriyon ez tala ezer iten. Ekainak 28n elkartu ta zeoze in berko genuke. Herrin gure balorek txertatu. Desorientatuta dauden gaztetzako re ondo eongo zan...” (Lesbianak)

“Tenemos ganas de hacer algo para que la gente vea lo que es la mujer árabe y que no se crean que la mujer árabe es una sumisa. Tenemos muchas cosas que ofrecer, sólo que no tenemos oportunidades.” (Arabeak)

f.1. Kultur aniztasuna

Orion hainbat kulturen arteko elkarbizitza dago. Kultur aniztasunaren inguruan txanponaren bi aldeak ikus ditzakegu. Alde batetik, kultura arabiarra duten emakumeek hainbat diskriminazio egoera salatzen dituzte.

“Por ejemplo en el parque le dijeron a mi hija: tu estás muy guapa sin pañuelo. Cuando seas mayor no te pongas el pañuelo como tu madre... Y yo me acerco y se calla... Es mi hija ¿Por qué le tiene que decir que se ponga o no el pañuelo? Será ella la que elija cuando tenga 18 años. Estamos en un país donde se habla sobre la libertad de la mujer para elegir pero cuando entra la religión ya no ¿Entiendes?” (Arabeak)

“Como le ven tapada creen que el pañuelo tapa el cerebro también, pero el cerebro no se puede tapar.” (Arabeak)

“Yo llevo años que quiero llevarlo. Muchas veces en casa me lo pongo y a la hora de salir me lo quito. No me siento preparada. Tienes que estar preparada para enfrentar la sociedad.” (Arabeak)

Bestalde, bertako kulturako emakumeek onartzen dute beren kulturatik diskriminatzen dutela.

“Kosta ite zaigu beste kultura bateko norbait gure laguna dala onartzia, ta hori arrazista da.” (Xaltxerak)

“Nire kanpon eon naizenen Hegoamerikan ta hola, asko indignatu naiz gauza batzuekin... Ta gero, etxian, enaiz kapaza... Hemen bai (Hegoamerikan), hemen sentitze zea super goian, esaten: hemen oso atzea zaudete ta gu gaude ikearri ondo! Osea nik nire burua ikusi nun ta geo eskandalizatu in nitzan ta esan niyen nekin zeuden beste 4 neskai: Aizue! Oso gaizki gabiltza, gero etxen

ez gea gai!” (Etxeluze)

Azkenik, Orion elkarbizitzen duten kultura ezberdinen saretzeko beharra ikusten da, baina, ez da hori gauzatzeko proposamen zehatzik egiten.

“Nosotras también somos parte de la sociedad y hay gente que esto no le entra en la cabeza. Pero nosotras tenemos muchas cosas que dar a esta sociedad también.” (Arabeak)

“Jatorri ezberdiñetako emakumen saretzia ber da” (Xaltxerak)

g. Emakumeon autonomiarako baliabiek

Talde-eztabaidetan behin eta berriz adierazi da konponketetarako formazio beharra, tradizionalki gizonezkoenak izan diren eremuetan ez baitugu trebatzeko baliabiderik izan. Horrez gain, gure autonomia garatu ahal izateko baliabideen beharra ikusi dugu, bai emakume arabeen taldean, baita Etxeluzeko emakumeen taldean ere.

“Gaztetxen auzolanetan etzeate beñe oso galduta sentitu?” (Etxeluze)

“Nik lengo urten inun elektrizitateko ikastarua Usurbilgo ahalduntze eskolatik, emakume batek emanda ta kriston empoderatuta sentitu nitzan.”(Xaltxerak)

“Ni musika-eskolan plantatu nitzaneren etzan nire burutik pasa bateriya jotzeko aukera ta bizi guztin gustatu izan tzait, baño enun ikusiten aukera hori... Ikuste nun pianua, bioliña, izatia zekan saxua, flauta, akordeoia... Bazeuden batzuk baño bateria ez, ta eztet uste zanikan etzaitelako gustatzen, baizik eta jasoetenagatik” (Etxeluze)

“Proposamenak: elektrizidadia, kotxeko mekanika, furgoneta kanperizatzeko, bizikleta konponketa, soñu tekikari tailerra, literatur lehiaketa feminista, irakurle talde feminista, fanzine tailerra, sormen tailerrak...” (Xaltxerak)

“Electricidad y fontanería.” (Esperientzia eskola)

“Bailar, leer, taller de memoria, irakurketa taldea. Oriyon zinia falta zaigu.” (Esperientzia eskola)

“En Orio no hay para poder estudiar castellano. Hay que ir a Zarautz y esto es un problema.” (Arabeak)

Atal honi amaiera emateko, aipatu nahi ditugu talde-eztabaidetako hausnarketak bultzatutako bi ondorio nagusi jasotzen dituzten pare bat baieztapen. Garrantzitsuak iruditu zaizkigu baieztapen hauek, gazteen artean atera direlako eta honek etorkizunari buruz hitz egiten digulako. Zehazki adierazte da emakumeen aldetik aldaketa eman dela, baina, oraindik, herria ez dela aldaketara egokitu. Beraz, gaur egungo nerabeek ez dute beren etorkizuna era aske batean irudikatzen Orion.

“Nik ikustetena da gaudela beste generaziyo baten beste ikuspegi bat dakau baño mundua oaindik eztao guk dakaun ikuspegi hortan” (Etxeluze)

“Gure etorkizuna ezteu Oriyon ikusten. Iñorrek ez. Ahal badeu ikasketak kanpon in, igualtzait nun, baño Oriyotik kanpo bizi. Herri polita da baño jendia... ez gea libre bizi” (Nerabeak)

4.- ONDORIO NAGUSIAK

Ahalduntze eskola era parte hartzaile batetan eraikitze asmoz egindako Orioko emakumeon beharren diagnosis bi metodologia bitartez egin da. Metodologia kuantitatiboa eta kualitatiboa. Metodologia kuantitatiboa inkesta bitartez egin da. Inkesta hau bai paperean eta baita on-line bitartez betetzeko aukera eman dugu. 4 hizkuntzetan eskaini dugu (euskaraz, gaztelaniaz, ingelesez eta frantsesez) eta deialdia 4 hizkuntza hauez gain arabieraz ere zabaldu dugu. 14 eta 83 urte bitarteko 285 emakumek erantzun dute inkesta hau. Gehiengoa heterosexuala izan arren, lesbiana, bisexual eta zehaztugabeko sexu-orientazioa dutenek bete dute. Gehiengoa euskaldunak izan dira, baina guztira, Euskal Herria eta Espainia barne, 4 kontinenteetan banatutako 12 herrialdetako emakumeek hartu dute parte inkestan. Azkenik, aniztasun funtzionala duten emakumeen iritzia ere jaso dugu inkesta bitartez.

Metodologia kualitatiboa talde eztabaida bitartez gauzatu dugu. 7 talde eztabaida egin ditugu honako talde hauekin: Xaltxerak talde feminista, Orio Feminista taldea, Etxeluzeko emakumeak, emakume nerabeak, esperientzia eskolako emakumeak, emakume lesbiana eta emakume arabiarak. Gure helburua, talde eztabaidetan ere ahalik eta aniztasun gehiena jasotzea izan da. Guztira 42 emakumek hartu dute parte talde eztabaidetan. 15 eta 83 urte bitartekoak, heterosexualak, lesbianak, bisexualak eta zehaztugabeko orientazioa zutenen iritzi eta hausnarketak jaso ditugu. Azkenik, kultur aniztasunari dagokionez kultura arabiarra duten emakumeen ekarpenak ere jaso ditugu.

Informazio guzti hau era ulergarri batean aurkeztu ahal izateko inkestetan erabilitako blokeetan oinarritu gara, talde eztabaidetan sortu diren beste gaiei lekua emanez. Ondorengo lerroetan adieraziko dugu bi metodologia hauen bitartez jasotako ondorio nagusiak.

Gorputza eta osasuna

Gorputz eta osasun multzoari dagokionez, 'elikaduraren bitarteko autozaintza' (%64,6), 'zoru pelbikoaren lanketa' (%43,2) eta 'sexu osasuna' (%42,1) dira inkestetan gehien aukeratu diren ikastaro edo tailerrak.

Sexualitatearen gaia aztertzean talde-eztabaidetan hainbat arlo aipatu dira: hilekoari buruzko bizipen anitzak, desio sexualaren adierazpenarekiko zailtasunak, aniztasun sexualaren bizipena eta sexualitateari buruz hitz egiteko zailtasunak, osasun sexualaren ardura, osasun zerbitzuen tratua eta ikuspegia eta formakuntza falta.

Beste alde batetik, Orioko adin guztietako emakumeei zeharkatzen die edertasun ereduak betetzeko presioak. Gainera, edertasun ereduaren arauak ezberdinak dira adin bakoitzarentzat. Gure gorputzaren bizipena eta hau adierazteko modua ez da askea.

Gorputza eta osasunaren atalean kirola egiteko baliabide nagusietako bat polikiroldegia izanik talde-eztabaidetan parte-hartu duten guztiek adierazi dute hau ez dela espazio seguru eta eroso bat emakumeontzat.

Zaintza arloari dagokionez zaintzaren ardura osoa emakumeoi egotzi zaigu eta honek gure bizitza osoa baldintzatu du eta baldintzatzen jarraitzen du. Besteen zaintzan sozializatuak gara, gure buruaren zaintzaren gainetik. Hau 'elikaduraren bitartez autozaintza' (%64,6) izendatu dugun tailerrarekin lotuta dago, Orioko emakumeok gure burua zaintzeko beharra ikusten dugu.

Osasuna era integral batean ulertuz, nerabeek ardura adierazten dute osasun mentalaren inguruan, eta inkestetan argi islatzen da gai honekiko interesa dagoela, %68,8ak 'kudeaketa emozionala' aukeratu du lantzeko gai bezala eta %69,8ak 'mindfulness'.

Guzti honekin ondorioztatu dezakegu, bai norberaren gorputzari dagokionez, baita sexu desio eta orientazioari dagokionez ere, osasun integralari, autoirudiari, autoezagutza eta autozaintza maila eskasari dagokionez, sexualitateak ahalduntze eskolarako zutabe bat izan behar duela. Emakumeon bizitzaren eta gorputzaren zeharlerro bat delako eta argi geratu dira arlo honetan dauden hutsune larriak.

Indarkeria Matxista

Gorputza, kirola eta indarkeria gaiak lantzean espazio publikoaren erabilera behin eta berriro ateratzen den arloa izan da. Alde batetik, espazio publikoaren erabilera lotsak eta beldurrak mugatuta bizi dugu. Bestetik, Oriori buruzko iruditegi sinbolikoan ez dago emakumeontzako lekurik eta, azkenik, adierazpen kulturaletan genero rol tradizionalak indartzen dira herriko kultur aniztasunari lekurik eman gabe.

Sexualitatearen atalean azaldu dugun bezala lesbianek mespretxuak, bazterkeri eta abar. bizi dituzte, deseroso sentitzen dira, horren ondorioz, lesbiana askok ez dute beren lekua Orion aurkitzen eta herritik joaten dira. Bestetik, gai honekiko sentsibilizazio eta formakuntza falta azpimarratu da. Honen adierazle dugu 'aniztasun sexuala' lantzeko ekimena %25,3ak aukeratu izana galdesortetan.

Esperientzia eskolako emakumeek indarkeria jasateko eta beren burua ez babesteko sozializatuak izan direla adierazi dute. Bestetik, gazte eta nerabeek salatu dute herrian bizi dituzten indarkeria sexual eta eremu ezberdinetako diskriminazioa.

Gazteen artean, gaur egun, jasotzen den mezuetakoa bat da emakumeon lekua familia dela ikasketa eta garapen profesionalen gainetik. Lan eremuan ere diskriminatuak eta erasotutakoak gara. Aisialdi eremuan ere bazterkeria eta indarkeria sexuala ematen da gure herrian. Guzti honen ondorioa frustrazio, babes falta eta beldur sentimentuak izanik.

Emakume helduenek genero indarkeriaren identifikazio garbi bat eman digute talde-eztabaidetan eta gazteek gertuko harremanetan indarkeria mota hau identifikatzeko zailtasunak adierazi dituzte. Informazio hau guztia inkestetan islatzen da. Alde batetik, %49,1ak indarkeria matxistari buruzko

formakuntza edo tailerrak eskatu ditu, eta %61,1ak autodefentsa feministari buruzkoak.

Errealitate oso hau kontuan izanik Indarkeria Matxistaren prebentzioa eta aurre egitea ahalduz eskolaren beste ardatz nagusietako bat bezala identifikatzen dugu. Indarkeria Matxista etengabeko errealitatea da Orion emakume guztiontzat, beraz, ezinbestekoa da arazo estruktural honi aurre egiteko baliabideak eskaintzea.

Saretzea eta Parte-hartzea

Orion badaude emakume erreferenteak, baina ez dira erreferentzialtasunarekin tratatzen, ez dira ikusgarri egiten, eta ez da beren eremuan egindako lana behar bezala baloratzen. Honek gure erreferenteak herritik kanpo kokatzen ditu eta herrian gure saretze eta parte-hartzea mugatu egiten du. Gainera, parte-hartzen dugunean, batez ere eremu mixtoetan, gure ahotsa ez da gizonen ahotsaren adina entzuten. Ildo beretik galdesortetako emaitzen arabera, %33,8a izan da 'Feminismo anitzak' ekimenarekiko interesa adierazi duena. Eta parte-hartzeari dagokionez, %41,7ak 'autoantolaketa' formakuntza eskatu du.

Kultur aniztasunaren inguruan txanponaren bi aldeak ikus ditzakegu. Alde batetik, kultura arabiarraren emakumeek hainbat diskriminazio egoera salatzen dituzte. Bestalde, bertako kulturako emakumeek onartzen dute beren kulturatik diskriminatzen dutela. Inkesta bete duten %44,2ak 'kultur aniztasunaren' lanketa beharra adierazi du inkestan eta Orioko atzerrian jaiotako emakumeetatik %54,5a da jarduera hau eskatu duena.

Indarkeria Matxistaren identifikazioa, emakumeen erreferentzialtasun falta eta emakume anitzak saretzeko beharrak ikusita, azken hau, ahalduz eskolaren lan ildo estrategiko bat izango da, emakumeon parte-hartze soziopolitiko bultzatzeko.

Emakumeon autonomiarako baliabideak

Tradizionalki gizezkoenak izan diren eremuetan ez dugu trebatzeko baliabiderik izan. Horrez gain, gure autonomia garatu ahal izateko baliabideen beharra ikusi dugu. Inkestetan %49,6ak 'oinarrizko brikolajea' aukeratu du beharrezko jarduera bezala. Horrez gain, talde-eztabaidetan jaso ditugun proposamenak ildo hau jarraitzen dute, adibidez, elektrizitate eta iturgintza, kotxeko mekanika, furgonetak kanperizatze tailerra, bilzikleten konponketa.

Sormena lantzeko aipatu ditugun saioetan 'joskintza' (%36,3) eta 'dantza' (%36,7) izan dira arrakastatsuenak. Ildo honetatik jasotako beste proposamenen artean 'irakurle taldeak' sortzearen gogoia talde ezberdinetan aipatu da.

Atal honetan aipatzen ditugun ikastaroek hainbat helburu dituzte: autoestima lantzea, autonomia maila handitzea, emakumeen sare soziala zabaltzea eta estrategikoki mugimendu feminista indartzea.

Ondorio nagusi bezala, esan dezakegu, Orion, beste herrietan bezala, Indarkeria Matxista errealitate bortitza dela. Emakume guztiek adierazi dituzte intentsitate maila desberdinetako Indarkeria Matxista egoerak. Gainera, argi ikusi dugu, adina, sexu orientazio, aniztasun kulturala eta aniztasun funtzionala zaugarritasun ardatz direla, eta emakume identitatearekin batera, indarkeria jasateko aukerak biderkatu egiten direla.

Beste alde batetik, emakumeek gauzatutako lorpenek eta borrokek, edo, azken finean, edozein ekintzek, ez dute oihartzunik herrian. Honek, erreferentzialtasun falta izugarria sortzen du, emakumeon parte-hartze soziopolitikoak oztopatuz.

Guzti honen ondorio da Orioko hainbat emakumeek ez dutela beren bizitza herrian askatasunez garatzeko aukerarik ikusten. Adierazi da nola lesbiana askok herritik joateko hautua egin duten, emakume arabiarrek gizartetik kanporatzen dituztela sentitzen duten, Etxeluzeko neskek diote gure gizarteak emakumeek egindako bidea jarraitzeke duela oraindik eta, azkenik, nerabeek, ez dute beren etorkizuna Orion irudikatzen.

Beraz, Ahalduntze eskola ezinbestekoa ikusten dugu arazo eta gabezi guzti hauei erantzuna emateko. Eraldaketa soziala bultzatu eta guztiontzat lekua duen herri bat eraiki ahal izateko.